

---

JAUNGOIKOAREN **BILLA**  
MAGDALENA CASTAÑER DE  
GIRONELLA, FERNANDO DIAZ  
PLAJA, JOAN GICH

---

MADALENA CASTAÑER DE GIRONELLA.  
ETXEKOANDREA

"Txikitan lekaimen ikastetxe batean ezia izan nintzan. Ango legeak estuak ziran: otoitzak, mezak, agurtzak... azken bakoak.

18 urtekin, guztiz asperturik, erlejiñoko gauza guztiak baztertu nebazan. Baiña beti be Ebanjelioen idaztia pozik irakurten neban... Eta orain azkenean auxe garbi ikusi al izan dot: gizon batek –Jesus'ek-arma eta diru barik, gogorkeri barik, munduan egin dan iraultzarik andiena egitea, guztiz eziña dala... Jesus gizon utsa baiño zerbait geiago da...

Nire bizitzan askotan bide bi onein artean aurkitu naz: sinistu ala ez sinistu... Baiña azkenean ez-sinistek urtenbide bako azken batera naroala ikusi dot, eta Jesusengan sinistek bakarrik ni salbatu naikela".

**FERNANDO DIAZ PLAJA.**  
**BERRI-EMOILLEA**

"Jaungoikoagan sinistea ez da, nire ustez, zientziatzako egietan oiñarritzen. Sinistea maitemintzen –enamoratzearen– antzeko da. Mutil bat ez da neska batekin maitemintzen aurretik buruaz kalkulatu, neska orretzaz maitemintzeak zer onik ekarriko deustan... Mutil gazte bat alako neska bategaz maitemintzen da, biotzak on eskatzen deutsalako, neska on barik ezin bizi dalako...

Beste aldetik, gizon guztiak eta aide guztietakoak sinistu izan dabe, gure gaiñetiko zerbait edo norbait ba dala... Zeru goitik, Jaungoikoaren begiekin begiratu ezker, bai dala gauza barregarria –nik ala uste dot– iltzera galduta dagoan gizon arroak, bere jomuga eta gerokoaren jabe dala, pentsatzea!

Jesus Jaungoikoa ete dan itanduten deustazu? Jaungoikoa ez balitz, izan bear leuke. Guk gizonok Jaungoikoarengana eroango gaituen norbaiten bearra

dogu... Urrutiko Jaungoikoari, itzala eta bildurra deutsalagu, baiña Jesuseri –ezagutu ezker– nai ta naiez, maitasuna emongo deutsalagu...

Jesus'en dotriña baiño ederragorik ez da munduan orain arte irakatsi... Baiña tamalez guk, Aren ikasle garala diñogunok, ez dogu gure maisuaren irakatsia gure eguneroko bizitzan mamitzen".

**JOAN GICH. ARTE-KRITIKOA**

"Jaungoikoagan sinisten dodan itanduten deustazu?"

Mundu zabal eder guzti au, eguzki-izarretatik asi, eta lore txiki eta mikrokosmoseraño, ain ederto egina, ustekabez, iñork eratu barik, berez egin dala, nik ezin dot buruan sartu.

Jesus Jaungoikoa dala sinisten dodan?

Jesus'en pertsona eta izatea ain gorengoa, bere nagusitasun morala ain danen gaiñetikoa da, ezin da beste gizonen bardiñean jarri. Jesus'en dotriña hedonista edo atsegiña emotekoa izan balitz, gizonak pozik artuko eben; baiña Jesus'ek agindutakoa beteten ain aldatz gora izanik, gizonak onartzea ulertu eziña egiten jat.

Chesterton idazle ospetsuak ederto esan eban: "Kristo'k mendiko itzaldian garbitzen ez dauan xaboa eskeini eban. Garbitzen ez dauan xaboa zelan saldu? Mirari on Jesus'ek egin eban. Kristo'ren dotriña gure instintoen ain aurkako izanik, aide guztietan zabaldu da. Bai al da mirari arrigarriagorik?"